

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak bere webgunean leku zehatz bat eskaini die udalei, zinegotziak aukeratzeko azaroaren 20an egingo diren hauteskunde partzialetarako

Araudia eta hauteskundeko egutegia ematen ditu gaztelaniaz nahiz euskaraz, bai eta deskarga daitezkeen formulario eta inprimakiak ere

Lunes, 10 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak, bere webgunean, gune zehatz bat eskaintzen die udal nafarrei [gaztelaniaz](#) eta [euskaraz](#), eta gune horren bidez, datorren azaroaren 20rako aurreikusita dauden zinegotziak aukeratzeko hauteskunde partzialak egiteko beharrezko formularioak eta txartel-ereduak deskargatu ahal izango dira. Gune horrek, gainera, hauteskunde horien deialdiari, hura zuzentzen duen araudiari eta haren hauteskunde-egutegiari buruzko informazioa eskainiko du, eta dagozkien legezko araudiak ikusteko estekak izango ditu.

Gogoratuko denez, iragan irailaren 21ean Nafarroako Gobernuak hauteskunde partzialen deialdia onartu zien iragan maiatzaren 22ko hauteskundeetan hautagaitzarik aurkeztu ez zuten kontzejuei. Hala, postu hauek bete nahi dira: kontzeju irekiaren erregimenean zuzendu behar diren kontzejuetako lehendakariena, eta lehendakariak nahiz batzordekideek osatutako batzorde baten bidez zuzendu eta administratu behar diren kontzejuetako batzordeena. Zehazki, 43 udalerritako [127](#) kontzeju dira (9.357 biztanle, guztira) beren ordezkariak hautatzera deitutakoak.